

MERKATURAKO GARDENTASUN INFORMAZIOA

Espainiako Bankuak gardentasunari buruz emandako aholkuei jarraikiz, Caja Laboral Popularrek informazio hauek kaleratzen ditu, 2017ko lehen seihilekoaren amaierako datuetan oinarrituta: hipoteka-merkatuari buruzkoa; eraikuntzarako, higiezinaren sustapenerako eta etxebizitzak erosteko finantzaketei buruzkoa; zorren ordainean eskuratutako aktiboei buruzkoa; birfinantzatzeko, birfinantzatutako eta berregituratutako eragiketei buruzkoa; bezeroentzako maileguen arlokako banaketari buruzkoa, eta esposizioen kontzentrazioari buruzkoa, jardueraren eta eremu geografikoaren arabera. Horretarako, Espainiako Bankuaren 2011ko azaroaren 30eko 5/2011 Zirkularrean eta 2012ko irailaren 28ko 6/2012 Zirkularrean ezarritako banakapen-ereduak erabili ditu. Alderatzeko, 2016ko abenduaren 31ko kopuruak ere txertatu dira.

1. Hipoteka-merkatuko jaulkitzaileen eta kontabilitate-erregistro bereziaren gaineko informazioa

Erakunde jaulkitzailearen kontabilitate-erregistro bereziko datuei buruzko informazioa ere txertatu da, hipoteka-merkatuaren alderdi jakin batzuk garatzen dituen kreditu-erakundeentzako 7/2010 Zirkularrean xedatutakoaren harira, apirilaren 24ko 716/2009 Errege Dekretuaren 21. artikulua zehazten duen bezala, eta Espainiako Bankuaren azaroaren 30eko 5/2011 Zirkularrak agintzen duen banakapen-mailarekin.

Era berean, eta hipoteka-merkatua eta finantza- eta hipoteka-sistemaren beste arau batzuk erregulatzeko martxoaren 25eko 2/1981 Legearen alderdi jakin batzuk garatzen dituen apirilaren 24ko 716/2009 Errege Dekretuak zehaztutakoaren arabera, Administrazio Kontseiluak adierazten du, 2017ko ekainaren 30ean, Entitateak prozedura eta politika sorta zehaztuta daukala hipoteka-merkatua arautzen duen araudia bete egingo dela bermatzeko, eta beraren ardura dela hori beteko dela ziurtatzea.

Politika eta prozedura horietan, besteak beste, honako gai hauen inguruko irizpideak sartzen dira:

Arriskua onartzeko irizpideak mailegu-hartzaileen ordaintzeko gaitasunean oinarritzen dira. Hori balioesteko, barne-ereduak (scoringak eta ratingak) funtsezkoak dira.

Hipoteka-bermea eta abal-emaileak dira onartutako arintzaile nagusiak. Hipoteka-bermean, eragiketen LTV erlazioa –arriskua eta tasazioa– eta abal-emaileak balioesten dira, bereziki.

Eredu horiek gai dira ez ordaintzeko aukera zenbatesteko eta, beraz, eskabidearen lehen kreditu-kalifikazioa esleitzeko, idatzitako datuetan eta aldagai batzuen portaera historikoetan oinarrituta. Eragiketa bakoitza kalifikatzeko, arrisku-mailarik txikienetik handienara doan eskala bat erabiltzen da, eta maila horietako bakoitzaren arabera ez-ordaintzeak izateko probabilitatea esleitzen zaio.

Ereduak aldagai batzuk zenbatesten dituzte: errenta- edo sarrera-maila, ondarea edo zorpetzea, ordainketetan izandako portaera, kreditatuaren atxikimendua eta alderdi pertsonalak eta arrisku-eragiketari lotutako ezaugarri jakin batzuk.

Zehazki, honako aldagai motak bereizten dituzte indarrean dauden ereduak: ezaugarri pertsonalak, ez-ordaintzeen historikoa, errentak edo sarrerak lortzeko ahalmena, zorpetzea, ondare garbia, Entitatearekiko atxikimendua, eragiketaren ezaugarriak eta kreditua ematearen estaldura (arintzaileak).

Horrez gain, sistemari sartutako informazioa egiaztatzeko prozedurak daude, batez ere datu hauek egiaztatzeko: diru-sarrerak, ondarea, hipoteka-bermea (higiezina tasatzearen bidez), finantzaketaren norakoa, bezeroaren datu orokorrak eta bezeroaren portaera-oinarriak.

Arrisku-eragiketak formalizatzeko, tasazioak egiten dira, hipoteka-bermetzat erabiltzen diren aktibo higiezinen balioa zehazteko. Tasazioak honako baldintza hauek bete behar ditu:

- Espainiako Bankuaren Tasazio Erregistro Ofizialean erregistratutako tasazio-sozietateek egin behar dute.
- ECO/805/2003 Ministerio Agindua, 2003ko martxoaren 27koa, bete behar du.

Aktibo horien balioa maiztasun desberdinarekin berrikusten da, aldagai hauek aintzat hartuta: bermatutako eragiketaren kalifikazioa, beraren balioa eta beraren LTVa (arriskua / aktiboaren balioa). Hala, politika desberdinak zehazten dira arazotsutzat sailkatutako eragiketarako —zalantzak edo esleituak— edota normalizat edo zaintza berezikotzat sailkatutakoetarako.

a) Eragiketa aktiboak

2017ko ekainaren 30ean eta 2016ko abenduaren 31n, hipoteka-mailegu eta -kredituen zorroaren balio nominala 10.488.019 mila eurokoa eta 10.636.348 mila eurokoa izan da, hurrenez hurren. Horietatik, aukeragarriak izateko baldintzak betetzen dituzte (aipaturiko Errege Dekretuaren 12. artikulua zenbatekoan ezartzen dituen mugak kontuan hartu gabe) 7.413.157 eta 7.548.727 mila eurok, hurrenez hurren.

Ondoren, Entitatearen esku dauden eta hipoteka bidez bermatuta dauden maileguen eta kredituen balio nominala aurkeztuko dugu. Ildo beretik, araudian xedatutakoaren arabera, horien artean hipoteka-bonuen eta hipoteka-zedulen jaulkipen-muga kalkulatzeko aukeragarriak direnen berri emango dugu:

	Mila eurokotan	
	2017-06-30	2016-12-31
	Balio nominala	Balio nominala
Maileguak guztira (a)	11.125.506	11.495.024
Jaulkitako hipoteka-partaidetzak	-	-
Horietatik: aktiboan onartutako maileguak	-	-
Jaulkitako hipoteka-maileguen ziurtagiriak	637.488	858.676
Horietatik: aktiboan onartutako maileguak	637.488	858.676
Jasotako finantzaketak bermatzeko hipoteka-maileguak	-	-
Hipoteka-bonu eta -zedulen jaulkipena babesteko maileguak	10.488.019	10.636.348
Mailegu ez-aukeragarriak (b)	3.074.862	3.087.621
Aukeragarriak izateko baldintzak betetzen dituzte, salbu eta 716/2009 Errege Dekretuaren 5.1 artikuluan xedatutako muga	1.868.008	1.996.524
Gainerako mailegu ez-aukeragarriak	1.206.854	1.091.098
Mailegu aukeragarriak (c)	7.413.157	7.548.727
Hipoteka-bonuen jaulkipenak estaltzen dituzten maileguak (d)	-	-
Hipoteka-zedulen jaulkipenak estaltzeko erabil daitezkeen maileguak	7.413.157	7.548.727
Zenbateko ez-konputagarriak	9.089	9.035
Zenbateko konputagarriak	7.404.068	7.539.692

- (a) Entitatearen aldeko hipoteka bidez bermatutako maileguetan —hipoteka-partaidetzen eta hipoteka-transmisioko egiaztatagiriaren bidez eskuratutakoak ere kontuan hartuta— erabilia eta kobratu gabe dagoen printzipala, balantzetik baja eman arren, eta zenbateko horrek azken tasazioaren zenbatekoan duen ehunekoa —*loan to value*— edozein izanik ere.
- (b) Hipoteka bidez bermatutako maileguak, hirugarrenei transferitu gabeak eta jasotako finantzaketei lotuta ez daudenak, eta ez dituztenak betetzen hipoteka-bonuak eta hipoteka-zedulak jaulkitzeko aukeragarritzat jotzeko baldintzak, 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluan zehaztutakoaren arabera.
- (c) 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikulua arabera, hipoteka-bonuak eta hipoteka-zedulak jaulkitzeko aukeragarriak diren maileguak, Errege Dekretu berorren 12. artikulua ezarritako zenbatekora murriztu gabe mugak.
- (d) 716/2009 Errege Dekretuaren 12. artikuluan finkatutako irizpideen arabera, hipoteka-bonuen eta hipoteka-zedulen jaulkipena estaltzeko zenbakarriak ez diren mailegu aukeragarrien zenbatekoa.

Segidan, 2017ko ekainaren 30ean eta 2016ko abenduaren 31n hipoteka-mailegu eta -kredituek hainbat zenbatekotako atributuen arabera duten banakapena aurkeztuko dugu:

	Mila eurokotan			
	2017-06-30		2016-12-31	
	Hipoteka-bonu eta -zedulen jaulkipena babesten duten maileguak (a)	Horietatik: mailegu aukeragarriak (b)	Hipoteka-bonu eta -zedulen jaulkipena babesten duten maileguak (a)	Horietatik: mailegu aukeragarriak (b)
GUZTIRA	10.488.019	7.413.157	10.636.348	7.548.727
1 ERAGIKETEN JATORRIA	10.488.019	7.413.157	10.636.348	7.548.727
1.1 Entitateak sortuak	10.402.954	7.354.463	10.546.937	7.486.004
1.2 Beste erakunde batzuetatik subrogatuak	85.065	58.694	89.411	62.723
1.3 Gainerakoak	-	-	-	-
2 MONETA	10.488.019	7.413.157	10.636.348	7.548.727
2.1 Euroa	10.488.019	7.413.157	10.636.348	7.548.727
2.2 Gainerako monetak	-	-	-	-
3 ORDAINKETAREN EGOERA	10.488.019	7.413.157	10.636.348	7.548.727
3.1 Normala	9.782.897	7.191.527	9.879.853	7.486.004
3.2 Beste egoera batzuk	705.122	221.630	756.495	62.723
4 BATEZ BESTEKO HONDAR EPEMUGA	10.488.019	7.413.157	10.636.348	7.548.727
4.1 Hamar urtera artekoa	4.514.254	2.979.756	4.496.987	2.960.952
4.2 Hamar eta hogeitaz bitartekoa	5.962.308	4.428.461	6.118.991	4.577.238
4.3 Hogeitaz eta hogeitaz hamar urte bitartekoa	11.454	4.939	20.370	10.536
4.4 Hogeitaz hamar urtetik gorakoa	-	-	-	-
5 INTERES TASAK	10.488.019	7.413.157	10.636.348	7.548.727
5.1 Finkoa	267.491	128.098	175.904	64.113
5.2 Aldakorra	-	-	-	-
5.3 Mistoa	10.220.528	7.285.059	10.460.444	7.484.614
6 TITULARRAK	10.488.019	7.413.157	10.636.348	7.548.727
6.1 Pertsona juridikoak eta enpresaburu indibidualak (enpresa-jarduerak)	1.209.394	1.565	1.279.643	2.006
<i>Horietatik: eraikuntza eta higiezinaren sustapena (lurzorua barne)</i>	109.112	320	128.059	328
6.2 Gainerako familiak	9.278.625	7.411.592	9.356.706	7.546.721
7 BERME MOTA	10.488.019	7.413.157	10.636.348	7.548.727
7.1 Bukatutako aktiboak/eraikinak	10.366.506	7.400.928	10.501.614	7.535.745
7.1.1 Etxebizitzak	9.753.905	7.379.598	9.867.427	7.513.096
<i>Horietatik: babes ofizialeko etxebizitzak</i>	294.701	215.108	309.574	227.601
7.1.2 Bulegoak eta lokal komertzialak	334.249	17.605	344.708	18.435
7.1.3 Gainerako eraikin eta eraikuntzak	278.352	3.725	289.479	4.214
7.2 Eraikitze-bidean dauden eraikinak/aktiboak	6.476	-	6.050	-
7.2.1 Etxebizitzak	6.476	-	6.050	-
<i>Horietatik: babes ofizialeko etxebizitzak</i>	-	-	-	-
7.2.2 Bulegoak eta lokal komertzialak	-	-	-	-
7.2.3 Gainerako eraikin eta eraikuntzak	-	-	-	-
7.3 Lursailak	115.037	12.229	128.684	12.982
7.3.1 Hiri-lurzoru finkatua	94.431	6.175	103.828	6.278
7.3.2 Gainerako lursailak	20.606	6.054	24.856	6.704

- (a) Hirugarrenei transferitu ez zaizkien eta jasotako finantzaketari lotuta ez dauden hipoteka-maileguetatik erabilitako eta kobratu gabeko printzipala, azken tasazioaren zenbatekoaren gainean arrisku osoaren ehunekoak –loan to value– edozein dela ere.
- (b) 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikulua arabera, hipoteka-bonuak eta hipoteka-zedulak jaulkitzeko aukeragarriak diren maileguak, Errege Dekretu berorren 12. artikulua ezarritako zenbatekora murriztu gabe mugak.

Aipaturiko Errege Dekretuaren 12. artikuluan zehaztutako irizpideak aintzat hartuta, 2017ko ekainaren 30ean eta 2016ko abenduaren 31n hipoteka-tituluak jaulkitzeko baliazarritzat jotzen dira 7.404.068 mila euro eta 7.539.692 mila euro, hurrenez hurren.

Balio nominalari eta eguneratuari dagokionez, azken hori aipaturiko Errege Dekretuaren 23. artikulua zehaztutakoarekin bat kalkulatuta, Entitateak ez du hipoteka-bonuen jaulkipenik 2017ko ekainaren 30ean eta 2016ko abenduaren 31n, eta oraindik zorroan agertzen diren eta hipoteka-partaidetzen bidez edo hipoteka-transmisioko ziurtagirien bidez mobilizatu diren hipoteka-mailegu eta -kredituen balio nominala 637.488 eta 858.676 mila eurokoa da, 2017ko ekainaren 30ean eta 2016ko abenduaren 31n, hurrenez hurren.

Aukeragarriak ez diren hipoteka-mailegu eta -kreditu guztien balio nominala 3.074.862 mila eurokoa izan da 2017ko ekainaren 30ean (3.087.621 mila eurokoa 2016ko abenduaren 31n). Horietatik 1.868.008 eta 1.996.524 mila eurok (2017ko ekainaren 30ean eta 2016ko ekitaldia ixtean, hurrenez hurren) ez dituzte betetzen 716/2009 Errege Dekretuaren 5.1 artikuluan zehaztutako mugak eta horrexegatik ez dira aukeragarriak, baina aukeragarriei eskatzen zaizkien gainerako baldintzak betetzen dituzte (arau horren 4. artikuluan adierazitakoak, alegia).

Hauxe da, 2017ko ekainaren 30ean eta 2016ko abenduaren 31n, hipoteka-bonuak eta hipoteka-zedulak jaulkitzeko hipoteka-mailegu eta -kreditu aukeragarrien balio nominalaren banaketa, hipoteka-merkatuaren ondorioetarako eskura dugun azken tasazioaren zenbatekoaren gaineko ehuneko arriskutsuaren arabera:

2017ko ekainaren 30ean

	Mila eurokotan				GUZTIRA
	Eskura dugun azken tasazioan zehaztutako zenbatekotik erabilitako printzipala (<i>loan to value</i>) (b)				
	2017-06-30				
% 40koa edo handiagoa	% 40koa baino handiagoa eta % 60koa edo txikiagoa	% 60koa baino handiagoa eta % 80koa edo txikiagoa	% 80koa baino handiagoa		
Hipoteka-bonu eta -zedulak jaulkitzeko aukeragarriak diren maileguak (a)	2.347.129	2.696.376	2.369.651	-	7.413.157
- Etxebizitzen gainekoak	2.328.857	2.679.081	2.359.239	-	7.367.177
- Gainerako ondasun higiezinaren gainekoak	18.272	17.295	10.412	-	45.979

2016ko abenduaren 31n

	Mila eurokotan				GUZTIRA
	Eskura dugun azken tasazioan zehaztutako zenbatekotik erabilitako printzipala (<i>loan to value</i>) (b)				
	2016-12-31				
% 40koa edo handiagoa	% 40koa baino handiagoa eta % 60koa edo txikiagoa	% 60koa baino handiagoa eta % 80koa edo txikiagoa	% 80koa baino handiagoa		
Hipoteka-bonu eta -zedulak jaulkitzeko aukeragarriak diren maileguak (a)	2.367.748	2.708.229	2.472.749	-	7.548.727
- Etxebizitzen gainekoak	2.350.088	2.689.070	2.462.432	-	7.501.590
- Gainerako ondasun higiezinaren gainekoak	17.660	19.159	10.317	-	47.137

- (a) 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikulua arabera, hipoteka-bonuak eta hipoteka-zedulak jaulkitzeko aukeragarriak diren maileguak, Errege Dekretu berorren 12. artikulua ezarritako zenbatekora murriztu gabe mugak.
- (b) Loan to value ratioa lortzeko, eragiketa bakoitzean erabilitako printzipala bermearren azken tasazioaren zenbatekoarekin zatitzen da.

Hona hemen 2017ko lehen sei hilekoan eta 2016ko ekitaldian hipoteka-bonuen eta hipoteka-zedulak jaulkipena babesten duten hipoteka-mailegu eta -kredituen (hala aukeragarrien nola ez-aukeragarrien) balio nominalean izandako mugimenduak:

	Mila eurokotan	
	Mailegu aukeragarriak (a)	Mailegu ez-aukeragarriak (b)
1.- Saldoa 2016ko ekitaldia irekitzean	7.910.767	3.033.938
2.- Epealdiko bajak	1.160.184	732.910
2.1 Mugaeguneratutako eta eskudirutan kobratutako printzipala	9.052	27.624
2.2 Kitapen aurreratuak	105.030	129.786
2.3 Beste erakunde batzuek subrogatuak	-	-
2.4 Gainerako bajak	1.046.102	575.500
3 Epealdiko altak	798.144	786.594
3.1 Entitateak sortuak	446.362	226.252
3.2 Beste erakunde batzuetatik subrogatuak	-	-
3.3 Gainerako altak	351.782	560.342
4 Saldoa 2016ko ekitaldia ixtean	7.548.727	3.087.621
1 Saldoa 2017ko ekitaldia irekitzean	7.548.727	3.087.621
2 Epealdiko bajak	246.074	293.638
2.1 Mugaeguneratutako eta eskudirutan kobratutako printzipala	7.589	13.039
2.2 Kitapen aurreratuak	63.256	42.653
2.3 Beste erakunde batzuek subrogatuak	1.316	1.260
2.4 Gainerako bajak	173.913	236.685
3 Epealdiko altak	110.504	280.879
3.1 Entitateak sortuak	109.860	277.906
3.2 Beste erakunde batzuetatik subrogatuak	644	2.973
3.3 Gainerako altak	-	-
4 Saldoa 2017-06-30ean	7.413.157	3.074.862

(a) 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluan arabera, hipoteka-bonuak eta hipoteka-zedulak jaulkitzeko aukeragarriak diren maileguak, Errege Dekretu berorren 12. artikuluan ezarritako zenbatekora murriztu gabe mugak.

(b) Hirugarrenei transferitu gabe eta jasotako finantzaketei lotuta ez dauden hipoteka-bermeko maileguak, 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikuluan zehaztutako baldintzak betetzen ez dituztenak eta, beraz, hipoteka-bonuak eta hipoteka-zedulak jaulkitzeko aukeragarritzat ez direnak.

Hona hemen hipoteka-bonuen eta hipoteka-zedulen jaulkipena babesten duten hipoteka-mailegu eta -kredituen saldoak, 2017ko ekainaren 30ean eta 2016ko abenduaren 31n:

	Mila eurokotan	
	2017-06-30	2016-12-31
	Printzipal erabilgarriak (a)	Printzipal erabilgarriak (a)
Hipoteka-bonu eta -zedulen jaulkipena babesten duten hipoteka- maileguak	33.583	28.263
- Aukeragarriak izan daitezkeenak (b)	-	-
- Ez-aukeragarriak	33.583	28.263

- (a) Hirugarrenei saldu ez zaizkien eta jasotako finantzaketari lotuta ez dauden hipoteka-mailegu guztietan konprometitutako zenbatekoak (muga) ken erabilitako zenbatekoak, azken tasazioaren zenbatekoaren gaineko arrisku osoaren ehunekoa (loan to value) edozein dela ere. Etxebizitzak saltzen direnean soilik sustatzaileei ordaintzen zaizkien zenbatekoak ere barne hartzen ditu saldo erabilgarriak.
- (b) Hipoteka-bonuak eta -zedulak jaulkitzeko aukeragarriak izan daitezkeen maileguak, 716/2009 Errege Dekretuaren 3. artikulua araberak.

2017ko ekainaren 30ean eta 2016ko abenduaren 31n, Entitateak ez du identifikatu hipoteka-zedula biziak jaulkitzeko ordezkotzat aktiborik, ez dituelako beharrezkotzat ikusten; izan ere, data horietan, egindako jaulkipenak beraiek babesteko aktibo aukeragarri guztien % 27,99 eta % 27,49 dira hurrenez hurren, eta Hipoteka Merkatua Arautzeko martxoaren 25eko 2/1981 Legearen 16. artikulua araberak, % 80rainokoak ere izan daitezke.

b) Eragiketa pasiboak

Entitatearen hipoteka-mailegu eta -kredituen zorroa oinarri hartuta, 2017ko ekainaren 30ean eta 2016ko abenduaren 31n egindako eta bermatutako jaulkipenak zehaztuko ditugu jarraian:

Hipoteka-titulua	Mila eurokotan			
	2017-06-30		2016-12-31	
	Balio nominala	Batez besteko hondar-epemuga (hilabetetan)	Balio nominala	Batez besteko hondar-epemuga (hilabetetan)
1 Jaulkitako hipoteka-bonu biziak	-		-	
2 Jaulkitako hipoteka-zedulak (a)	2.075.000		2.075.000	
<i>Horietaik: pasiboan onartuak</i>	1.225.000		1.225.000	
2.1 Zorra adierazten duten baloreak. Eskaintza publiko bidez jaulkitakoak	850.000		850.000	
2.1.1 Urtebetera bitarteko hondar-epemuga	700.000		-	
2.1.2 Urtebetetik bi urtera bitarteko hondar-epemuga	-		700.000	
2.1.3 Bi urtetik hiru urtera bitarteko hondar-mugaeguna	75.000		-	
2.1.4 Hiru urtetik bost urtera bitarteko hondar-epemuga	75.000		150.000	
2.1.5 Bost urtetik hamar urtera bitarteko hondar-epemuga	-		-	
2.1.6 Hamar urtetik gorako hondar-epemuga	-		-	
2.2 Zorra adierazten duten baloreak. Gainerako jaulkipenak	-		-	
2.2.1 Urtebetera bitarteko hondar-epemuga	-		-	
2.2.2 Urtebetetik bi urtera bitarteko hondar-epemuga	-		-	
2.2.3 Bi urtetik hiru urtera bitarteko hondar-mugaeguna	-		-	
2.2.4 Hiru urtetik bost urtera bitarteko hondar-epemuga	-		-	
2.2.5 Bost urtetik hamar urtera bitarteko hondar-epemuga	-		-	
2.2.6 Hamar urtetik gorako hondar-epemuga	-		-	
2.3 Gordailuak	1.225.000		1.225.000	
2.3.1 Urtebetera bitarteko hondar-epemuga	-		-	
2.3.2 Urtebetetik bi urtera bitarteko hondar-epemuga	-		-	
2.3.3 Bi urtetik hiru urtera bitarteko hondar-mugaeguna	600.000		-	
2.3.4 Hiru urtetik bost urtera bitarteko hondar-epemuga	625.000		1.225.000	
2.3.5 Bost urtetik hamar urtera bitarteko hondar-epemuga	-		-	
2.3.6 Hamar urtetik gorako hondar-epemuga	-		-	
3 Jaulkitako hipoteka-partaidetzak (b)	-		-	
3.1 Eskaintza publiko bidez jaulkitakoak	-		-	
3.2 Gainerako jaulkipenak	-		-	
4 Jaulkitako hipoteka-transmisioko ziurtagiriak (b)	637.488	239	858.676	243
4.1 Eskaintza publiko bidez jaulkitakoak	-	-	-	-
4.2 Gainerako jaulkipenak	637.488	239	858.676	243

- (a) Hipoteka-zeduletan, entitateak jaulki eta amortizatu gabe daudenak ere barne hartzen dira, nahiz eta pasiboan erregistratuta ez egon (hirugarrenei saldu ez zaizkielako edo berrerosi egin direlako).
- (b) Aktiboan erregistratutako (balantzean eutsitako) hipoteka-mailegu eta -kredituei dagozkien hipoteka-partaidetzen eta hipoteka-transmisioko ziurtagirien zenbatekoa.

2. Eraikuntzaren eta higiezinaren sustapenaren sektorearekiko esposizioari buruzko informazioa

a) Eraikuntzaren eta higiezinaren sustapenaren sektorearekiko esposizioa

Hona hemen eraikuntzara eta higiezinaren sustapenera bideratutako finantzaketa eta haren estaldurak 2017ko ekainaren 30ean eta 2016ko abenduaren 31n:

	2017-06-30		
	Kontabilitate-balio gordina	Berme erreal eraginkorren gehienezko zenbateko berreskuragarriaren gaineko gehiegizko esposizio gordina	Balio narriadura metatua
Eraikuntzara eta higiezinaren sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne) (Espainiako negozioak)	188.539	94.167	89.675
Horretatik: ez-betetzeekin / zalantzazkoak	149.283	77.170	88.489
Pro memoria:			
Aktibo kobraezinak	310.389		
Pro memoria:	Zenbatekoa		
- Administrazio publikoei ez beste bezeroei emandako maileguak (Espainiako negozioetan)	13.064.751		
- Aktiboa guztira (negozio guztietan)	21.764.806		
- Normaltzat sailkatutako esposizioetarako balio-galerak eta hornidurak	99.309		
	2016-12-31		
	Kontabilitate-balio gordina	Berme erreal eraginkorren gehienezko zenbateko berreskuragarriaren gaineko gehiegizko esposizio gordina	Balio narriadura metatua
Eraikuntzara eta higiezinaren sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne) (Espainiako negozioak)	195.186	89.714	99.682
Horretatik: ez-betetzeekin / zalantzazkoak	164.066	81.154	98.886
Pro memoria:			
Aktibo kobraezinak	297.241		
Pro memoria:	Zenbatekoa		
- Administrazio publikoei ez beste bezeroei emandako maileguak (Espainiako negozioetan)	13.110.954		
- Aktiboa guztira (negozio guztietan)	20.662.077		
- Normaltzat sailkatutako esposizioetarako balio-galerak eta hornidurak	97.431		

Jarraian, 2017ko ekainaren 30ean eta 2016ko abenduaren 31n eraikuntzara, higiezinaren sustapenera eta etxebizitza erostera bideratutako finantzaketaren banakapena aurkeztuko dugu:

	Eraikuntzara eta higiezinaren sustapenera bideratutako finantzaketa. Kontabilitate-balio gordina	
	2017-06-30	2016-12-31
Higiezinaren bermerik gabe	17.402	15.017
Higiezinaren bermearekin	171.137	180.169
Amaitutako eraikinak eta eraikuntzak	100.136	119.319
Etxebizitza	73.708	104.269
Gainerakoak	26.428	15.050
Eraikitze-bidean dauden eraikuntzak eta eraikinak	2.848	2.342
Etxebizitza	1.685	2.342
Gainerakoak	1.162	-
Lurzorua	68.153	58.508
Hiri-lurzoru finkatua	50.154	58.508
Gainerako lurzorua	17.999	-
Guztira	188.539	195.186

Etxebizitza erosteko familiei emandako kredituen zenbatekoaren xehapena honako hau da, 2017ko ekainaren 30ean eta 2016ko abenduaren 31n:

	2017-06-30		2016-12-31	
	Kontabilitate-balio gordina	Horietatik: zalantzak	Kontabilitate-balio gordina	Horietatik: zalantzak
Etxebizitza erosteko kreditua	9.836.243	230.833	9.901.578	251.857
Higiezinaren bermerik gabe	181.616	3.127	177.899	3.015
Higiezinaren bermearekin	9.654.627	227.706	9.723.679	248.842

Hona hemen etxebizitza erosteko familiei emandako hipoteka-bermedun kredituaren banakapena, 2017ko ekainaren 30ean eta 2016ko abenduaren 31n eskura dugun azken tasazioaren zenbatekoaren gainean dakarten arriskuaren arabera:

	Azken tasazioaren zenbatekoaren gaineko kontabilitate-balio gordina (loan to value)					
	2017-06-30					
	% 40koa edo txikiagoa	% 40koa baino handiagoa eta % 60koa edo txikiagoa	% 60koa baino handiagoa eta % 80koa edo txikiagoa	% 80koa baino handiagoa eta % 100koa edo txikiagoa	% 100koa baino handiagoa	Guztira
Kontabilitate-balio gordina	2.405.560	2.922.588	2.775.622	584.149	966.709	9.654.627
Horretatik: ez-betetzeekin / zalantzak	19.278	35.235	57.946	38.299	76.948	227.706

Azken tasazioaren zenbatekoaren gaineko kontabilitate-balio gordina (loan to value)

	2016-12-31					Guztira
	% 40koa edo txikiagoa	% 40koa baino handiagoa eta % 60koa edo txikiagoa	% 60koa baino handiagoa eta % 80koa edo txikiagoa	% 80koa baino handiagoa eta % 100koa edo txikiagoa	% 100koa baino handiagoa	
Kontabilitate-balio gordina	2.395.482	2.877.684	2.805.969	617.116	1.027.427	9.723.678
Horretatik: ez-betetzeekin / zalantzak	20.914	34.509	50.604	49.599	93.216	248.842

Hona hemen zorrak ordaintzeko jasotako aktiboen xehetasuna, 2017ko ekainaren 30ean eta 2016ko abenduaren 31n:

	2017-06-30		2016-12-31	
	Kontabilitate-balio gordina	Balio narriadura metatua	Kontabilitate-balio gordina	Balio narriadura metatua
Eraikuntzako eta higiezinaren sustapeneko enpresetarako finantzaketetatik datozen higiezinetakoa aktiboak	446.903	266.422	471.373	271.223
Amaitutako eraikinak eta eraikuntzak	56.169	30.728	66.789	33.557
Etxebizitza	53.923	29.682	64.594	32.551
Gainerakoak	2.246	1.046	2.195	1.006
Eraikitze-bidean dauden eraikuntzak eta eraikinak	14.161	7.527	22.123	10.538
Etxebizitza	14.161	7.527	22.123	10.538
Gainerakoak	-	-	-	-
Lurzorua	376.573	228.168	382.461	227.128
Hiri-lurzoru finkatua	60.079	42.872	59.526	41.294
Gainerako lurzorua	316.494	185.296	322.935	185.834
Familiei etxebizitza erosteko emandako hipoteka-finantzaketetatik datozen higiezinetakoa aktiboak	36.203	5.825	34.210	6.879
Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako gainerako higiezinetakoa aktiboak	25.675	4.487	23.016	4.595
Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako kapital-tresnak	-	-	-	-
Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako aktibo higiezinak dituzten erakundeen kapital-tresnak	77.175	47.187	-	-
Zorrak ordaintzeko esleitutako edo jasotako aktibo higiezinak dituzten erakundeentzako finantzaketa	10.218	2.645	14.291	6.718
Guztira	596.174	326.566	542.890	289.415

Sektore sustatzailearen arrisku arazotsuaren gestioa

Gaur egun Taldeak politika murriztailea darabil.

Ondoren adieraziko ditugu onartzeko irizpideak:

- Indarrean dauden arriskuei dagokienez:
 - Ez-ordaintzeak, enbargo-arriskua edo konkurtsoan sartzeko arriskua duten sustatzaileekin ditugun arriskuak berreskuratzea, dela adjudikazio bidea erabili eta aktiboak erosiz (adiskidetasuneko konponbidea), dela auzibidea erabiliz.
 - Zorra berrantolatzea, baldin eta jarduketa horren ondorioz hasierako egoera hobetzea lortzen bada (esposizioa murriztu egin delako edota bermeak hobetu direlako) eta betiere zuzkidura gehiagorik egin behar ez bada.
- Arrisku-eskaera berriei dagokienez:
 - Lurzoruak. Ez dugu lurzoruak erostea finantzatzen; izatekotan, Laboral Kutxaren aktiboak dituen sozietateak lurzoruak saltzeko eragiketak finantzatzen mugatzen gara, eta betiere erosleak sustatzaile kontrastatuak badira.
 - Eraikuntza. Kreditatuak eta finantzaketa-proiektuak baldintza zorrotzak bete behar dituzte bideragarriak direla ziurtatzeko.
 - Kaudimen frogatua duten sustatzaileentzat soilik. Sektorean eskarmentu frogatua izatea eskatuko da, bai eta finantza-balantzea onbidean izatea ere, zor-bolumen jasagarriarekin eta proiektu bideragarriekin balantzean.
 - Proiektuei eskatu beharreko baldintzak:
 - Kargarik gabe eta guztiz ordainduta dagoen lurzoria ekartzea; hau da, zorrik ez izatea, baldintza suntsiarazlerik edo erosketari lotutako abalik ez izatea, trukerik ere ez...
 - Sustatzaileak gutxienez proiektuaren kostu osoaren % 30 eman behar du, edota lurzoria bestela, baldin eta lurzoriaren balioa kostu osoaren % 30 baino handiagoa bada. Lurzoria berrikitan erosi bada, haren balioztat joko da erosketa-balio gordina, zergak eta tasazioa kenduta. Hartara, LABORAL Kutxak kostuaren % 70 emango du gehienez, orubearen kostua barnean sartuta.
 - Merkaturatze-maila: aurretiko salmentak (salmenta-kontratua sinatu ostean hartuko dira halakotzat), gutxienez salmenta-bolumenaren % 70; edota, sustapenen proposamen mailan bada, eman beharreko maileguaren % 100.
 - 2-3 urterako epea, orientazio moduan, obra burutzeko epearen eta merkaturatzeko arrazoizko aldiaren arabera.

- Finantzaketaren eskuragarritasuna. Gehienez, obra zuzendaria den arkitektoak sinatutako obra-ziurtagiriaren % 100koa izango da, betiere zorra tasazio-balioaren % 70 baino txikiagoa bada.

b) Birfinantzamendu-eragiketak

Entitateak onartuta dauka arriskuak berrantolatzeko politika. Horren arabera, eragiketak berrantolatzea arriskuak gestionatzeko tresna da, eta adiskidantzako berreskurapenera zuzenduta dago. Hala, batetik birfinantzamendu-eragiketak eta bestetik berregituratutako edo berritutako eragiketak bereizten dira. Lehenengoetan, eragiketa berri bat ematen da aurretikoa kitzeko; bigarrenetan, irekita dagoen eragiketa baten baldintza bat edo batzuk aldatu egiten dira.

Era berean, halako eragiketak berresteko ahalmenak ezarri dira, horiek ordaindu gabeko kuotak (berankorrak) izan ala ez. Ahalmen hori Arriskuen Kudeaketaren Departamentuarena (eta bertako atalena) izango da beti.

Zalantzakortasun ondorioetarako, birfinantzamendu- edo berregituratze-eragiketa bakar bat ere ez da normaltzat kalifikatuko. Hona hemen kalifikatzeko tipologiak:

A) Normala, zaintza berezian

Zalantzakoa eta kobraezinak ez direnak, baina halere ahuleziak dituztenak. Operatiboki, gainerako tipologiak baztertu ondoren gelditzen direnak kokatuko ditugu tipologia horretan. Hau da, birfinantzamendu- eta berregituratze-eragiketa ez bada geroago zehaztuko ditugun tipologietan sartzen, «Normala, zaintza berezian» dela joko dugu.

Kreditu-arriskuagatiko galeraren estaldura (beharrezko zuzkidura) zenbatespen kolektibo bidez egingo da.

B) Zalantzakoa, berankortasunaren ondorioz

90 egunetik gorako ez-betetzeak dituzten birfinantzatutako edo berregituratutako eragiketak.

Kreditu-arriskuagatiko galera (nahitaezko zuzkidura) estaltzeko, zenbatespen kolektiboa egingo da, «garrantzizkotzat» jotzen direnak (3 milioi euro) izan ezik. Azken horietan, arrisku-analistak erabakiko du beharrezko zuzkidura.

C) Zalantzakoa, berankortasuna ez den beste arrazoi batzuegatik

Osorik itzuliko den arrazoizko zalantzak daudenean. Egoera hori arrazoitze aztarnak edo adierazleak aztertuko dira.

Eragiketa motak (birfinantzamendu-eragiketa, birfinantzatutako eragiketa eta berregituratutako eragiketa) bereizteko irizpideak zehazten dituen irailaren 28ko 6/2012 Zirkularrak eta apirilaren 27ko 4/2016ko zirkularrak egindako aldaketak betez, eta

Entitate nagusiak horren harira zehaztutako politikai jarraikiz, 2017ko ekainaren 30eko eta 2016ko abenduaren 31ko birfinantzamendu-eragiketen, birfinantzatutako eragiketen eta berregituratutako eragiketen xehetasunak azalduko ditugu.

2017-06-30ean

	GUZTIRA							Horietatik: ez-betetzekin / zalantzaok						
	Berme errealik gabe		Berme errealarekin				Balio nariadura metatua	Berme errealik gabe		Berme errealarekin			Balio nariadura metatua	
	Eragiketa kopurua	Kontabilitate-balio gordina	Eragiketa kopurua	Kontabilitate-balio gordina	Kontuan har daitekeen berme errealaren gehienezko zenbatekoa			Eragiketa kopurua	Kontabilitate-balio gordina	Eragiketa kopurua	Kontabilitate-balio gordina	Kontuan har daitekeen berme errealaren gehienezko zenbatekoa		
					Higiezin bermea	Gainerako berme errealak						Higiezin bermea		Gainerako berme errealak
Kreditu-erakundeak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Administrazio publikoak	2	780	6	9.667	8.860	-	-	-	1	7.144	7.144	-	-	-
Beste finantza-sozietate eta enpresaburu individual batzuk (finantza-alarreko enpresa-jarduera)	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Finantza alorrekoak ez diren beste sozietate eta enpresaburu individual batzuk (finantza-alarreko ez den enpresa-jarduera)	960	83.053	844	284.298	88.386	15.243	(175.417)	708	27.579	721	214.094	68.182	12.355	(142.449)
<i>Horietatik: eraikuntzara eta higiezin sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne)</i>	9	623	109	104.873	37.764	249	(62.769)	9	623	97	99.439	33.082	249	(62.016)
Gainerako familiak	820	7.718	1.448	142.501	109.254	2.743	(34.209)	652	6.170	1.072	110.319	78.454	2.738	(33.570)
GUZTIRA	1.782	91.551	2.298	436.466	206.500	17.986	(209.626)	1.360	33.749	1.794	331.557	153.780	15.094	(176.019)
INFORMAZIO GEHIGARRIA														
Aktibo ez-korrontetzat sailkatutako finantzaketa eta salmentarako prest gisa sailkatutako elementu sorta besterengarriak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-

2016-12-31n

	GUZTIRA (*)							Horietatik: ez-betetzekin / zalantzaok						
	Berme errealik gabe		Berme errealarekin				Balio nariadura metatua	Berme errealik gabe		Berme errealarekin			Balio nariadura metatua	
	Eragiketa kopurua	Kontabilitate-balio gordina	Eragiketa kopurua	Kontabilitate-balio gordina	Kontuan har daitekeen berme errealaren gehienezko zenbatekoa			Eragiketa kopurua	Kontabilitate-balio gordina	Eragiketa kopurua	Kontabilitate-balio gordina	Kontuan har daitekeen berme errealaren gehienezko zenbatekoa		
					Higiezin bermea	Gainerako berme errealak						Higiezin bermea		Gainerako berme errealak
Kreditu-erakundeak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-
Administrazio publikoak	11	56.572	15	18.184	12.153	-	-	-	1	7.372	7.372	-	-	-
Beste finantza-sozietate eta enpresaburu individual batzuk (finantza-alarreko enpresa-jarduera)	3	277	-	-	-	-	(1)	-	-	-	-	-	-	-
Finantza alorrekoak ez diren beste sozietate eta enpresaburu individual batzuk (finantza-alarreko ez den enpresa-jarduera)	1.761	116.724	1.798	411.382	155.769	40.804	(195.066)	601	29.124	774	243.594	74.033	13.357	(163.414)
<i>Horietatik: eraikuntzara eta higiezin sustapenera bideratutako finantzaketa (lurzorua barne)</i>	9	271	140	129.000	48.176	346	(75.482)	6	241	111	119.210	39.160	346	(74.967)
Gainerako familiak	1.554	20.310	5.147	407.883	355.128	5.377	(43.232)	623	5.887	1.355	130.168	89.661	2.656	(42.226)
GUZTIRA	3.329	193.883	6.960	837.449	523.050	46.181	(238.299)	1.224	35.011	2.130	381.134	171.066	16.013	(205.640)
INFORMAZIO GEHIGARRIA														
Aktibo ez-korrontetzat sailkatutako finantzaketa eta salmentarako prest gisa sailkatutako elementu sorta besterengarriak	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-

(*) Horren baitan daude dagoeneko birfinantzamendu-eragiketatzat, birfinantzatutaz edo berregituratutaz identifikatuta ez dauden eragiketak, 2016ko abenduaren 31n normalizat jotzen zirenak.

Ondoren, 2017ko ekainaren 30eko eta 2016ko abenduaren 31ko bezeroentzako kredituaren banaketari buruzko informazioa emango da, jardueraren arabera banatuta, bai eta arriskuaren pilaketari buruzkoa ere, jardueraren eta eremu geografikoaren arabera banatuta.

2017ko ekainaren 30ean

	GUZTIRA	Horietatik: higiezin bermea	Horietatik: gainerako berme errealak	Berme erreala duten maileguak. Eskura dugun azken tasazioaren zenbatekoaren gaineko kontabilitate-balioa (loan to value)				
				% 40koa edo txikiagoa	% 40koa baino handiagoa eta % 60koa edo txikiagoa	% 60koa baino handiagoa eta % 80koa edo txikiagoa	% 80koa baino handiagoa eta % 100ekoa edo txikiagoa	% 100ekoa baino handiagoa
Administrazio publikoak	407.986	37.535	377	-	16.575	4.672	377	16.288
Beste finantza-sozietate eta enpresaburu indibidual batzuk (finantza-alarreko enpresa-jarduera)	19.210	-	370	-	-	-	-	370
Finantza alorrekoak ez diren beste sozietate eta enpresaburu indibidual batzuk (finantza-alarrekoa ez den enpresa-jarduera)	2.357.229	714.779	313.715	457.774	240.447	149.619	47.025	133.629
<i>eraikuntza eta higiezinaren sustapena (lurzorua barne)</i>	96.125	84.540	370	4.152	12.168	11.116	17.677	39.797
<i>Herri-lanen eraikuntza</i>	60.895	3.807	2.917	4.027	1.062	857	448	329
<i>Gainerako helburuak</i>	2.200.209	626.432	310.427	449.596	227.217	137.645	28.899	93.502
<i>Enpresa handiak</i>	269.258	33.828	7.232	11.215	2.064	3.660	-	24.120
<i>ETEak eta enpresaburu indibidualak</i>	1.930.951	592.604	303.196	438.381	225.153	133.985	28.899	69.382
Gainerako familiak	10.688.312	10.066.679	30.370	2.695.907	3.029.250	2.819.493	582.690	969.709
<i>Etxebizitzak</i>	10.123.941	9.892.666	9.698	2.597.156	2.982.296	2.791.730	576.812	954.371
<i>Kontsumoa</i>	370.459	43.695	1.177	30.434	8.813	2.516	492	2.617
<i>Beste helburu batzuk</i>	193.912	130.317	19.496	68.318	38.142	25.247	5.386	12.721
GUZTIRA	13.472.736	10.818.993	344.832	3.153.681	3.286.273	2.973.784	630.091	1.119.996
<i>Pro memoria: Birfinantzamendu-eragiketak, birfinantzatuak eta berregituratuak</i>	318.391	238.098	18.920	34.439	53.738	59.375	36.083	73.384

2016ko abenduaren 31n

	GUZTIRA	Horietatik: higiezin bermea	Horietatik: gainerako berme errealak	Berme erreala duten maileguak. Eskura dugun azken tasazioaren zenbatekoaren gaineko kontabilitate-balioa (loan to value)				
				% 40koa edo txikiagoa	% 40koa baino handiagoa eta % 60koa edo txikiagoa	% 60koa baino handiagoa eta % 80koa edo txikiagoa	% 80koa baino handiagoa eta % 100ekoa edo txikiagoa	% 100ekoa baino handiagoa
Administrazio publikoak	330.924	40.425	377	-	16.976	1.318	3.307	19.201
Beste finantza-sozietate eta enpresaburu indibidual batzuk (finantza-alarreko enpresa-jarduera)	22.487	-	604	-	-	-	-	604
Finantza alorrekoak ez diren beste sozietate eta enpresaburu indibidual batzuk (finantza-alarrekoa ez den enpresa-jarduera)	2.342.590	747.051	322.794	468.658	252.462	148.543	54.396	145.786
<i>Eraikuntza eta higiezinaren sustapena</i>	92.627	91.754	479	6.409	12.720	13.842	19.623	39.639
<i>Herri-lanen eraikuntza</i>	72.649	8.958	3.230	4.119	1.679	1.887	2.571	1.932
<i>Gainerako helburuak</i>	2.177.313	646.339	319.085	458.130	238.063	132.814	32.202	104.215
<i>Enpresa handiak</i>	251.062	34.654	8.005	9.907	1.944	3.614	150	27.044
<i>ETEak eta enpresaburu indibidualak</i>	1.926.251	611.685	311.080	448.223	236.119	129.200	32.052	77.171
Gainerako familiak	10.745.290	10.141.782	31.928	2.694.152	2.987.540	2.855.529	613.796	1.022.693
<i>Etxebizitzak</i>	10.184.861	9.958.863	9.595	2.591.725	2.940.036	2.823.986	606.992	1.005.719
<i>Kontsumoa</i>	358.627	46.525	1.401	31.792	9.045	3.341	494	3.254
<i>Beste helburu batzuk</i>	201.802	136.394	20.932	70.635	38.459	28.202	6.310	13.720
GUZTIRA	13.441.290	10.929.258	355.703	3.162.810	3.256.978	3.005.390	671.499	1.188.284
<i>Pro memoria: Birfinantzamendu-eragiketak, birfinantzatuak eta berregituratuak</i>	793.033	581.227	48.517	181.376	159.185	114.201	54.668	120.314

2017ko ekainaren 30ean

	GUZTIRA	Espainia	Europar Batasuneko gainerako herrialdeak	Amerika	Munduko gainerako lurraldeak
Banku zentralak eta kreditu-erakundeak	2.189.611	1.524.602	652.372	7.546	5.090
Administrazio publikoak	5.038.594	4.614.283	424.311	-	-
<i>Administrazio zentrala</i>	4.460.974	4.036.662	424.311	-	-
<i>Beste administrazio publiko batzuk</i>	577.620	577.620	-	-	-
Beste finantza-sozietate eta enpresaburu indibidual batzuk (finantza-alarreko enpresa-jarduera)	437.130	201.636	193.770	22.402	19.322
Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak	2.722.540	2.700.824	18.703	1.705	1.308
<i>Eraikuntza eta higiezinaren sustapena (lurzorua barne)</i>	120.839	120.839	-	-	-
<i>Herri-lanen eraikuntza</i>	133.114	133.114	-	-	-
<i>Gainerako helburuak</i>	2.468.587	2.446.871	18.703	1.705	1.308
<i>Enpresa handiak</i>	391.295	371.863	18.351	-	1.080
<i>ETEak eta enpresaburu indibidualak</i>	2.077.292	2.075.008	352	1.704	228
Gainerako familiak	10.698.204	10.678.694	15.125	2.497	1.888
<i>Etxebizitzak</i>	10.123.941	10.105.440	14.305	2.329	1.867
<i>Kontsumoa</i>	370.459	370.091	290	56	21
<i>Beste helburu batzuk</i>	203.804	203.163	529	112	-
GUZTIRA	21.086.078	19.720.039	1.304.281	34.150	27.608

2016ko abenduaren 31n

	GUZTIRA	Espainia	Europar Batasuneko gainerako herrialdeak	Amerika	Munduko gainerako lurraldeak
Banku zentralak eta kreditu-erakundeak	1.184.212	548.227	629.661	5.722	602
Administrazio publikoak	4.763.435	4.763.435	-	-	-
<i>Administrazio zentrala</i>	4.256.057	4.256.057	-	-	-
<i>Beste administrazio publiko batzuk</i>	507.378	507.378	-	-	-
Beste finantza-sozietate eta enpresaburu indibidual batzuk (finantza-alarreko enpresa-jarduera)	420.026	157.019	215.792	23.051	24.164
Sozietate ez-finantzarioak eta enpresaburu indibidualak	2.809.127	2.761.261	40.375	4.198	3.293
<i>Eraikuntza eta higiezinaren sustapena (lurzorua barne)</i>	168.248	168.248	-	-	-
<i>Herri-lanen eraikuntza</i>	146.408	146.408	-	-	-
<i>Gainerako helburuak</i>	2.494.471	2.446.605	40.375	4.198	3.293
<i>Enpresa handiak</i>	420.355	379.128	35.960	2.201	3.065
<i>ETEak eta enpresaburu indibidualak</i>	2.074.116	2.067.477	4.415	1.997	228
Gainerako familiak	10.756.318	10.737.294	14.786	2.557	1.681
<i>Etxebizitzak</i>	10.185.915	10.167.723	14.138	2.396	1.658
<i>Kontsumoa</i>	358.626	358.270	287	46	23
<i>Beste helburu batzuk</i>	211.777	211.301	361	115	-
GUZTIRA	19.933.118	18.967.236	900.614	35.528	29.740